



Beasaingo Udala

BEASAINGO UDALA-IRAKURLE TALDEA

HITZARMENA

Beasainen, 2019ko urtarrilaren 17an,

Alde batetik, AITOR ALDASORO ITURBE, alkatea, P2002100 B Identifikazio Fiskaleko Kodearekin eta Beasaingo (20200) Loinazko San Martin plazan egoitza duena, Beasaingo Udalaren izenean.

Eta bestetik, Irati Goikoetxea Asurabarrena andrea, 72496589Z NAN zenbakiarekin Irakurle taldea ordezkatzuz.

AZALTZEN DUTE

Bi aldeek irakurzaletasunaren sustapena egiteko asmoarekin sinatzen dute hitzarmen hau.

KLAUSULAK

Lehena.- Xedea.

Lankidetzaren bidez Beasaingo Udalak irakurle taldearen jarduna bultzatu eta laguntzeko xedea du. Hortaz, 2018-2019 ikasturteko epealdian burutuko den kultur jardura hori du helburu. Talde bat eratuko da, Irati Goikoetxeak dinamizatuko duena hain zuzen.

Bigarrena.- Indarraldia.

Beasaingo Udalak eta Irati Goikoetxeak sinatzen duten hitzarmen honek 2018-2019 ikasturteko jardunari eragingo dio, 2018ko irailetik 2019ko uztailera bitartekoari.

Hirugarrena.- Bi aldeen betebeharrak.

Irati Goikoetxearen betebeharrak:

1. Udalari aurkeztutako 2018-2019 ikasturterako proposamena betetzea (11 irakurketa saio)
2. Saio horietako bat, apirilekoa, *euskal liburuak kalera* egitasmoa izango da, eta ohiko saioaz aparte gastuei aurre egiteko 150€ gehituko zaio. Egitasmo horren kartela egiteaz eta zabaltzeaz arduratuko da





3. Udal ordezkari eta teknikariekin egitasmoaren xehetasunak eta Komunikazioa lantzea.
4. Irakurle taldeko kideei saioen berri eman eta saioak dinamizatzea.
5. Irakurle taldera hartzaile berriak erakartzea, euskaraz irakurtzeko trebetasuna eta mintzamina areagotzeko helburuarekin.
6. Ikasturte amaieran jardueraren memoria aurkeztea.
7. Udaletik sor litezkeen ekitaldietan irakurle taldeko kideek parte hartzea.
8. Egitasmoaren amaieran faktura aurkeztuko diote Beasaingo Udalarari dagokion PFEZa aplikatuta.
9. Beasaingo idazle batek argitaratutako liburua irakurri eta aztertzea egilea gonbidatuz.
10. Aldian aldi landutako idazlearekin harremanetan jartzen saiatzea eta gero taldekideei kontatzeko bitxikeriak biltzea.
11. Igartza Bekarekin argitaratu duen idazlearekin harremanetan jartzea eta saioa prestatzea.
12. Irakurle taldeko saioak herriko gune ezberdinetan izatea, Igartzako jauregian ez ezik Udal Bibliotekan ere antolatzea.
13. Beasain Idazlehiaketako hainbat sariturekin harremanetan jarri eta saioa prestatzea.
14. Goierriko Irakurle taldeen III. Topaketan parte hartzea.
15. Beasain Idazlehiaketako sariak emateko ekitaldiko aurkezpena egitea. 2019an ekainaren 16an, 12:00etan Igartzako jauregian izango da.

Udalaren betebeharrak

1. Beasaingo Udalak jarduera burutzeko beharrezkoa den azpiegitura jarriko du.
2. Saio bakoitzaren kostua 150 eurokoa izango da. Egitasmoaren amaieran guztiaren ordainketa egingo da.
3. Egitasmoa ahalik eta baldintzarik onenetan egikaritzeko lagungarria den beste edozein motatako laguntza eman eta erabakiak hartuko ditu.
4. Egitasmoaren Komunikazioa egingo du.
5. Udala liburuen hornitzeaz arduratuko da.





Beasaingo Udala

6. Beasain Idazlehiaketako sariak emateko ekitaldiko aurkezpena egiteagatik 150€ ordainduko dizkio. Faktura bidez ordainduko da.

Laugarrena.- Lortu nahi diren helburuak

- Euskal literatura ezagutu, obrak nahiz idazleak. Euskaraz sortuak nahiz euskarara itzuliak.
- Literatur genero ezberdinak ezagutzea: eleberria, poesia, saiakera, antzerkia, komikia, bakarriketa, bertsoa, musika... 2018-2019an ere poesia liburu bat irakurtzea izango da helburu.
- Irakurzaletasuna bultzatzea. Irakurketarekin gozatzea.
- Hausnarketarako gune eta uneak sortzea.
- Euskara aberastea.
- Euskaraz aritzeko elkargune bat sortzea.
- Taldekideen arteko harremanak estutzea.
- Herritarren sare anitzak indartzea.
- Belaunaldi ezberdinen arteko topagune izatea.
- Herriko elkarte ezberdinekin elkarlanean aritzea: Asmube, Goieniz, Memoria historikoa, ...
- Igartza Bekaren irabazle izan den idazlea ezagutu eta berarekin solasaldia partekatzea.
- Irakurle taldeak herriko txoko ezberdinetan izatea presentzia.
- Beasaingo idazle baten lana ezagutu eta idazlea bera ezagutzea.

Bosgarrena.- Komunikazioa.

Taldeak egin lezakeen edozein publizitate motak Beasaingo Udalaren onarpena izan beharko du, ezarritako komunikazio arauetara egokitua egon dadin.

Seigarrena.- Ekarpen ekonomikoa

Irati Goikoetxeak burututako saioengatik, Udalak 150 euro saioko ekarpen ekonomikoa egingo du, faktura jaso ondoren. *Euskal liburuak kalera gauzatzeko aurreikusi den diru kopurua (150€) zuritzeko, hiru liburu sorten erosketaren fakturarekin zurituko da.*

Zazpigarrena.- Hitzarmena bertan behera uztea.



Irati Goikoetxe

Saioak burutzeko adinako parte-hartzaile kopurua bilduko ez balitz, saioak bertan behera uzteko erabakia har lezake Udalak, eta ondorioz hitzarmena eten egingo litzateke. Kasu horretan itzuli egin beharko zaio Udalari egin ez diren saio horientatik kobratutako diru kopurua.

Zortzigarrena.- Klausulen ez betetzeak.

Oinarri hauen eta aplikatzeko gainerako arauen arabera betebeharrak betetzen ez badira, hitzarmena haustea ekarriko du hitzartutako ekarpen ekonomikoa berriro aztertu ahal izango da.

Bederatzigarrena.-

Hitzarmen honen inguruan sor litezkeen zalantzak interpretatzea eta ebaztea Administrazioari dagokio.

Hamargarrena.-

Hitzarmen hau betetzeari dagokion guztirako, egitasmoaren dinamizatzailerik, Alkatetzak honetarako izendatzen duen edo dituen pertsona edo pertsonekin izango ditu zuzeneko harremanak.

Hamaikagarrena.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna babesteko klausula.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betetzea; bete ezean, bertako 24.2. eta 25.2. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz, Udalak ez du diru-laguntzarik emango.

Hamabigarrena.- Datu pertsonalak babesteko klausula.

- A. 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) ezarritakoa betez, alegia, Datu Pertsonalak Babestekoan, alde bakoitzak erasandakoen baimen informatua lortzeko ardura izango du, hain zuzen ere, hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean beharrezkoak diren beren datu pertsonalen tratamendurako. Era berean, alde bakoitzak hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean erabilitako datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatzeko ardura izango du.
- B. Elkarrekin Beasaingo Udalari datu pertsonalen lagapena eginez gero, uneoro, beren datu pertsonalak lagatzeko erasandakoen baimen informatua duela bermatu beharko du.
- C. Alde bakoitzak egin litzakeen indarrean dagoen datuak babesteko araudi honen ez-betetzeetatik lezkeen ardurak bere gain hartuko ditu.

Eta esandako guztiarekin ados egonik, bildutakoek dokumentu hau sinatu dute bikoizturik, goiburuan aipatutako data eta lekuan.

